

Bilbon, 2003.eko urriaren 24an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana-Martija, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
Piarres Xarritton,
eta Patxi Zabaleta
euskaltzainak.
Pello Telleria, idazkariordea, eta
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Altuna, ahala P. Salabururi; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Jean Louis Davant; Juan Mari Lekuona, ahala J. Haritschelharri. Patxi Goenagak, bilkura erdian alde egin behar izan duenean ahala P. Salabururi utzi dio.

Batzarra goizeko 10,18ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea

Iraileko batzarraren akta, P. Salabururen ohar batekin, onartu da.

2. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua:

arma-arrimu zerrendaren segida. P. Salabururen gidaritzapean, *arrantzadenda* eta

arrimu hitzen arteko oharrak ikusi dira. Ondoren, *Arrimugarri-askatu* zerrendari egindako oharretara pasatu da eta *arriskualdi-tik artatse*-rainoko hitzen oharrak aztertu dira.

3. Hiztegi Batuaren prozedura azkartzeko proposamena

Xabier Kintanak egindako gogoeta-proposamena, joan den hilean euskaltzainen artean banatua, azaldu du txostengileak, hitz zerrenda luzeagoak banatzeko eskatuz, eta ohar konkretuak hurrengo bilkuretan aztertzekoei egin arren, geroago ikertzekoen artean zeintzuei ohar egingo zaien ere adierazteko eskatuz, horrela, inolako oharrik izango ez dutenak 'askatu' eta besterik gabe berehala argitaratzeko.

X. Kintanaren proposamena onarturik ere, P. Salaburu Euskara Batuko batzordearen buruak beste txosten bat aurkeztu du, orain arteko prozeduraren nondik norakoak eta aztertuz, geldiuneak eta atzerapenak non eta zergatik gertatzen diren xeheki aztertuz. J.L. Lizundiak hitz zerrenden argitalpenak bi eratara (koardernoa eta liburua) nola egin daitezkeen azaldu du. I. Sarasola beldur da prozedura honekin ez ote dugun interesik gabeko hitzak besterik eskainiko.

Euskaltzainek, behar bezalako irizpidez erabakitzeke, hitzei buruzko informazioa ere behar dutela ere esan da. B. Oihartzabalek, gainera, hitzak onartzeko prozedura azkartu behar dela esan du. Kotsideraziook entzun ondoren, A. Urrutiak proposamen hau egin du prozedura azkartzeko metodologi protokoloa prestatzeko, datorren bilerrako, P. Salaburu eta X. Kintana elkarrekin bildu eta bien artean proposamen bateratua egitea. P. Salaburuk eta I. Sarasolak protokolo hori gogorri aplikatzea eskatu dute, eztabaida-denbora laburtzeko. J.L. Lizundiak lehen erabakiak ez ukitzea eskatu du, argitzeko ez bada. Proposamen guztiok ontzat eman dira.

4. *Aita santu* hitzaz

A. Eguzkitzak aita santuen izen-zerrenda dagoen bezala argitaratu baino lehen *aita santu* hitzaren grafiaz eztabaidatzeko aukera eskatu du. Ontzat eman da.

5. Eguneroko berba-zerrendak argitaratzeaz

A. Eguzkitzak, itzultzaile batzuek egiten dituzten gehiegikeriak kontuan izanda, beharrezkoa dakusa, berak osasun arloko lexikoan egin bezala, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuko ohiko lanez gainera, eguneroko bizitzako beste arloetan ere antzeko hitz zerrendak aldizka ematea. Lan hori lehendik ikusita dagoela erantzun zaio, eta M. Azkarate, X. Kintana eta A. Urrutia horretan arduraturik daudela. Beraz, haren proposamena hortxe kokatuko litzateke. B. Oihartzabalek uste du batzorde bereziak antola daitezkeela eguneroko hitzetarako eta terminologia berezirik, zerrenda horiei onarpen orokorra emanez. A. Urrutiak hori agintarien aurrean aurkeztu beharreko proiektuetan sar daitezkeela esan du. P. Xarritonek Frantzian irakaskuntzarako argitaratzen diren euskal liburuez bere iritzia eman du, espainol eta frantses gehiegikeriak salatuz, eta begiratazailen lana koordinatu beharko litzatekeela uste du.

6. «Euskaltzaindia: izaera eta finantza-bideak» txostenari egindako oharrak eztabaidatzea

P. Salaburuk txostenari eginiko oharrak banatu dira, baina denbora aurrera doala ikusirik eta presa handiagoko beste gai batzuk oraindik ukitzeko daudelako, Euskaltzainburuak ohar horiek hurrengo baterako uztea proposatu du.

7. Hitzarmen berria

J. Haritschelharrek Jarraipen-batzordearen berri eman du. Erakundeek Euskaltzaindiaren aurrekontu arruntaren ehuneko ehuna onartu dute, hots, egoitzen gastuak, Orotariko Hiztegia, Euskara Batua eta Hizkuntza Atlas. Agintariei hitzarmen berriaren proposamena egin eta bidali zitzairen. Jarraipen batzordean ohar batzuk egin dituzte, gaur euskaltzainei aurkeztu zaien testuan letra beltzaz markatuak. J.J. Zearretak eta A. Urrutiak jatorrizko testua eta beroni egindako aldaketak zertan diren argitu dute.

A. Urrutiak 2003.eko mentsa azaldu du. Era berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen emaitzak ziurtaturik daudela esan du, eta Eusko Jaurlaritzarena ere espero dela, eta agian Arabakotik ere zerbait. 2004.eko aurrekontuak (Jaurlaritzarenak eta diputazioenak) onartzen badira, protokoloa sinatu ahal izango da. Jarri dituzten baldintzak hauek dira: langile finkorik ez kontratatzea eta Orotariko Euskal Hiztegia 2004an

amaitzea. Jasoko diren oharrekin, Zuzendaritzarentzat agintariekin negoziatzeko ahalmena onartzea eskatu die gainerako euskaltzainei, eta eskari hau ontzat eman da. Hitzarmen berriaren aldaketa nabarmenez ere mintzatu da A. Urrutia: hemendik aurrera proiektuen araberako diru-emaitzak eskuratuko ditu Euskaltzaindiak, eta lana egin eta amaitu ahala helduko da dirua. Nafarroako arazoaren eskarmentuaz, sinatzaileetako batek alde egiten badu, besteek ordain dezakete haren hutsunea. Aurrekontuak xehetasun guztiekin, prestatu behar direla gaineratu du, giza eta diru baliabideak, denborak etab. ongi zehaztuz.

Euskaltzainburuak esan du, euskaltzainek, ohi bezala, oharrak bidaltzeko datorren hilaren 20ra arteko epea ukanen dutela, hitzarmenaren testua azaroan Donostiako bazarrean eztabaidatu ahal izateko.

8. Eskuartekoak

8.1. Literatura Sariak

Aurtengo Literatura Sarietarako aurkeztu diren lanen berri eman ondoren, Zuzendaritzak proposaturiko epaimahaikideen zerrenda banatu da:

Txomin Agirre, eleberrirako: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Alzaga, antzerkirako: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patxi Urkizu.

Felipe Arrese-Beitia, poesiarako: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate, saiorako: Xabier Alzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Bestalde, Iruñeko udalak urtero antolatzen duen Literatur Sarietarako Euskaltzaindiari epaimahaikide bat izendatzea eskatu dio. A. Iñigok horretarako A. Eguzkitza izendatzea proposatu du. Ontzat eman da.

8.2. Juan San Martinen omenaldia

Koldo Mitxelena Kulturunean Juan San Martin euskaltzainaren omenez azaroaren 11 eta 14 artean antolatuko diren jardunaldien programa jaso eta banatu da.

8.3. Sabino Aranaren mendeurrena

Sabino Arana fundazioak Abandoko politikari eta idazlearen omenez antolatu duen ekitaldian Euskaltzaindiak ere parte hartuko du, eta arazoaren 20an egingo den jardunaldia Akademiaren beheko aretoan burutuko da.

8.4. Kardaberazzen omenaldia

Euskaltzainburuak aita Agustin Kardaberazzen omenaldia Donostian, E.U.T.G.en azaroaren 27an ospatuko dela azaldu du.

9. Azken ordukoak

Azkenik, J.L. Lizundiak bere kexua adierazi du, aste honetan Etienne Salaberrri euskaltzain ohorezkoaren omenez Iparraldean eratu diren hiru ekitaldietan lau antola-

tzaileen artean Euskaltzaindia ez ikusteak harritu duelako. Are gehiago E. Salaberi euskaltzain ohorezkoa zenik ere programetan agertu ez delako. P. Xarriton ordezkariak huts hori aitortu du, gainera, horretarako prestaketa batzuk Akademiaren Baionako ordezkartzan egin dira eta. Hor Euskaltzaindiaren partaidetza ez agertzea erakundearentzat domaia dela esan du J.L. Lizundiak.

Bukaeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketa arduradunak *Euskaltzaindiaren arautegia eta barne-erregelak* eta Akademiaren 2002ko *Oroitidazkia* liburuak banatu dituzte euskaltzain artean.

Batzarra 2,30etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria